

**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA****2682**

AGINDUA, 2006ko martxoaren 30ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren Estatutuak onartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatu-tua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.22 artikuluan ezartzen denez, profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen alorreko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, ez beste inori, Espainiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan agindutakoa hautsi gabe, betiere.

Abenduaren 22ko 7/2003 Legeak sortu zuen Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa. Legearen lehen xedapen iragankorrak 3. idatz-zatian ezarri zuen behin betiko estatutuak onartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari jakinaraziko zitzaizkiola Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren bidez, legearen arabera zirela egiaztatzeko, azaroaren 21eko 18/1997 Legeak –tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa- 33. artikuluan eta otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuak –profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzkoa- 38. artikuluan ezarritakoarekin bat. Halaber, 3. idatz-zati horretan estatutuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara zitezela agindu zen.

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren Estatutuak legearen arabera direla egiaztatuta, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT:**1. artikulua.**– Onarpena.

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren Estatutuak onartzea.

2. artikulua.– Argitalpena.

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren Estatutuak agindu honen eranskinean argitara daitezela agintzea.

3. artikulua.– Inskripzioa.

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren Estatutuak Tituludun Lanbideen Erregistroan inskriba daitezela agintzea, erregistroa formalki osatzen denean.

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL****2682**

ORDEN de 30 de marzo de 2006, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se aprueban los Estatutos del Colegio de Educadores y Educadoras Sociales del País Vasco.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre, en el artículo 10.22, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio en lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución Española.

Por Ley 7/2003, de 22 de diciembre, se creó el Colegio de Educadores y Educadoras Sociales del País Vasco. En el apartado 3 de su Disposición Transitoria 1.^a se establecía que una vez aprobados sus Estatutos definitivos, los comunicaría a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social para verificar su adecuación a la legalidad, de conformidad con lo previsto en los artículos 33 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales y 38 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales, y ordenar su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Verificada la adecuación a la legalidad de los Estatutos del Colegio de Educadores y Educadoras Sociales del País Vasco, en virtud de las competencias que me otorga la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales,

RESUELVO:**Artículo 1.**– Aprobación.

Aprobar los Estatutos del Colegio de Educadores y Educadoras Sociales del País Vasco.

Artículo 2.– Publicación.

Ordenar la publicación de los Estatutos del Colegio de Educadores y Educadoras Sociales del País Vasco como anexo a la presente orden.

Artículo 3.– Inscripción.

Ordenar la inscripción de los Estatutos del Colegio de Educadores y Educadoras Sociales del País Vasco en el Registro de Profesiones Tituladas en el momento en que éste sea constituido formalmente.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Behin-behineko estatutuak indarrrik gabe uztea.– Gizarte hezitzaileen Euskadiko Elkargoaren behin-behineko estatutuak onartu zituen 2004ko uztailaren 22ko Agindua indarrrik gabe uztea.

AZKEN XEDAPENA

Eraginkortasuna.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko martxoaren 30a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

GIZARTE HEZITZAILEEN EUSKADIKO
ELKARGOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Deitura eta izaera

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa (GHEE) zuzenbide publikoko korporazioa da, izaera juridiko propioa du, bai eta bere xedeak betetzeko eta bere eginkizunak egikaritzeko gaitasun osoa ere.

2. artikulua.– Lurralde-eremua.

Elkargoaren eragineko lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

3. artikulua.– Egoitzaren helbidea.

Bailen kalea 1, 3. solairuko 7 atea. 48003 Bilbao.

Gobernu Batzordeak elkargoaren helbidea aldatu ahal izango du, behar izanez gero, eta elkargokideak aldateta horren jakinaren gainean jarriko ditu gehienez ere 10 eguneko epean.

4. artikulua.– Oinarrizko abiaburuak.

Elkargoaren barne egituraren eta funtzionamenduari oinarrizko printzipio dira elkargokideen arteko berdintasuna, bertako gobernu-organoen hautaketa demokratikoa, erabakiak gehiengo soilez hartzea, eta elkargokideek jarduteko askatasuna izatea, legeak errespetatuz.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Derogación de los Estatutos provisionales.– Queda derogada la Orden de 22 de julio de 2004, por la que se aprueban los Estatutos provisionales del Colegio de Educadores y Educadoras del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL

Efectividad.– La presente orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de marzo de 2006.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

ESTATUTOS DEL GIZARTE HEZITZAILEEN
EUSKADIKO ELKARGOA / COLEGIO DE
EDUCADORAS Y EDUCADORES SOCIALES
DEL PAÍS VASCO

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Denominación y naturaleza.

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa / Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del País Vasco (en adelante GHEE/CEESPV - Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa / Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del País Vasco) es una corporación de derecho público con personalidad jurídica propia y con plena capacidad para el cumplimiento de sus fines, y el ejercicio de sus funciones.

Artículo 2.– Ámbito territorial.

El ámbito territorial del Colegio es el correspondiente a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 3.– Domicilio de la sede.

La sede del Colegio será calle Bailén, n.º 1, piso 3.º puerta 7. 48003 Bilbao.

La Junta de Gobierno del Colegio podrá cambiar la sede del Colegio por motivos que así lo exijan poniendo en conocimiento de los colegiados dicho cambio en el plazo de 10 días.

Artículo 4.– Principios esenciales.

Son principios esenciales de la estructura interna y de su funcionamiento la igualdad de sus miembros, la elección democrática de sus órganos de gobierno, la adopción de los acuerdos por mayoría simple y su libertad de actuación dentro del respeto a las leyes.

5. artikulua.— Erregimen juridikoa.

Elkargoa arautzen dutenak honakoak dira: estatutu hauek, Eusko Legebiltzarraren azaroaren 21eko 18/1997 Legea —tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa—, eta Europar Erkidegoko, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko legeria, elkargoaren jardunean eragina izan dezakeenean.

6. artikulua.— Elkargoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren arteko harremana.

Korporazio eta erakundeekin loturiko kontu guztietan, elkargoak horretarako ezarritako organoaren bitartez izango ditu harremanak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoarekin.

7. artikulua.— Elkargoaren eta beste erakunde profesional eta publiko batzuen arteko harremana.

1.— GHEE-Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoak, estatu mailako harremanak lanbideko kontseilu nagusiarekin izango ditu, baldin eta sortzen bada, Estatuko legeria orokorrak agindutakoarekin bat etorritak.

2.— GHEE-Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-hezitzaileen elkargo bakarra den aldetik, lurralde eremu honetatik kanpoko beste elkargo edo elkarte profesional batzuekin elkarrekikotasun eta elkarlanerako akordioak ezarri ahal izango ditu.

3.— GHEE-Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoak unean-unean egoki irizten dituen harremanak ezarri ahal izango ditu, indarrean dagoen legeriari jarraituz, atzerriko eta nazioarteko erakunde profesionalekin.

4.— Komeni denean, elkargoak, dagozkion ahalmen markoen barruan, Estatuko Administrazioarekin eta estatuz gaindiko erakundeekin ere izan ahalko ditu harremanak.

II. TITULUA

ELKARGOAREN HELBURUAK ETA EGINKIZUNAK

8. artikulua.— Helburua.

Elkargoaren helburua hau da:

Euskal Herrian kidetutakoak ordezkatzea eta lanbidea eta euren interes orokorra defendatzea, bereziki edozein eremutako administrazio publikoekiko harremanetan.

9. artikulua.— Eginkizunak.

Elkargoaren eginkizunak hauek dira:

a) Lanbidearen jarduna forma eta modalitate guztietan arautzea, legeak ezarritako markoan, bai eta lanbidearen jarduna zaintzea ere.

Artículo 5.— Régimen jurídico.

El Colegio se rige por los presentes Estatutos, por la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales del Parlamento Vasco, y por la legislación comunitaria europea, estatal y autonómica que le afecte.

Artículo 6.— Relación del Colegio con el Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Colegio, en todas las cuestiones relativas a aspectos corporativos e institucionales, se relacionará con la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco a través del órgano establecido.

Artículo 7.— Relación del Colegio con otros organismos profesionales y públicos.

1.— GHEE/CEESPV - Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa / Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del País Vasco se relacionará con el Consejo General de la profesión a nivel estatal de acuerdo con lo que la legislación general del Estado determine, en el supuesto de creación.

2.— GHEE/CEESPV - Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa / Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del País Vasco como colegio de educadoras y educadores sociales único en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá establecer acuerdos de reciprocidad y cooperación con otros colegios o asociaciones profesionales de fuera de este ámbito territorial.

3.— GHEE/CEESPV - Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa / Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del País Vasco podrá establecer con los organismos profesionales extranjeros e internacionales las relaciones que, en el marco de la legislación vigente considere convenientes en cada momento.

4.— Cuando convenga, dentro de los correspondientes marcos competenciales, el Colegio se podrá relacionar también con la Administración del Estado y los organismos supraestatales.

TÍTULO II

FINALIDADES Y FUNCIONES DEL COLEGIO

Artículo 8.— Finalidad.

La finalidad del Colegio es:

Representar y defender la profesión y los intereses generales de los colegiados en el País Vasco, especialmente en sus relaciones con las Administraciones Públicas de cualquier ámbito.

Artículo 9.— Funciones.

Son funciones del Colegio:

a) Ordenar el ejercicio profesional en cualquiera de sus formas y modalidades, dentro del marco que establecen las leyes, y vigilar el ejercicio de la profesión.

b) Lanbidearen jardunerako baldintzak arautzeko garaian, botere publikoei aholku ematea.

c) Etika profesionala eta herritarren eskubide eta interesei zor zaien errespetua zaintzea.

d) Diziplina-eskumena egikaritzea lanbide eta elkar-goari buruzko gaitan.

e) Administrazioaren kontsulta-organoetan parte hartzea, hark hala eskatzen duenean, lanbidearen inguruko gaietara dagokienean.

f) Lanbidea ordezkatu eta defendatzea administrazio publikoaren, erakundeen, epaitegien eta gainerako pertsona publiko eta pribatuen aurrean; gainera, lanbidearen interesekin loturiko auzietan parte hartzeko eskubidea izango du.

g) Lanbidea bere osotasunean eta alderdi guztietatik gauzatzeko estatuko edo nazioarteko elkargoz gaindikoa erakundeetan sartzea.

h) Eskatzeko eskubidea erabiltzea, legearekin bat eginez, eta lanbidea defendatzeko bidezko irizten dituen lege-erreformak proposatzea.

i) Elkargoan kide-tutako en intereseko diren lanbide-eta zerbitzu-jarduerak, kulturalak, laguntzakoak, aurreikustekoak eta antzekoak antolatzea.

j) Lanbide-heziketa sustatu eta garatzea eta kide-tuen trebatze zientifikoa, teknikoa eta humanistikoa sendotzea.

k) Hainbat lanbide-espezialitate elkargoaren eraginetarako definitu eta erregulatzea, eta dagozkion arauak ezartzea, aurretiaz eskumena duten unibertsitate edo prestakuntza-erakundeetara jakinarazita eta beroiekin elkartuta.

l) Lanbidean intrusismoa ekiditeko hartu beharreko neurriak hartu eta, hala badagokio, lege-egintzak egikaritzea.

m) Bitartekari-lana betetzea eta arbitraia-prozedura erabiltzea, elkargokideen artean lanbide-kontuak direla-eta sortutako auzietan.

n) Lanbideko ordainsariei loturiko gaiak eztabaidatzen direnean, prozedura judizialean edo administrazio-prozeduretan txostenak eta irizpenak igortzea.

o) Lanbidearen jardunerako baldintza orokorren gainean Eusko Jaurlaritzak prestatzen dituen arau guztien berri ematea.

p) Administrazioak eskatuta edo elkargoak bere ekimenez ezarritako eginkizunak egikaritzea, besteak beste: ikerketak egitea, txostenak igortzea edo estatistikak burutzeko.

q) Lege orokor eta bereziak, barne-estatutuak eta araudiak, edo elkargoko organoek euren eskumeneko arloetan hartutako erabakiak eta arauak betetzea eta elkargokideetara betearaztea.

b) Colaborar con los poderes públicos en la reglamentación de las condiciones generales del ejercicio de la profesión.

c) Velar por la ética profesional y el respeto a los derechos de los ciudadanos.

d) Ejercer la jurisdicción disciplinaria en materias profesionales y colegiales.

e) Participar en los órganos consultivos de la administración cuando ésta lo requiera, en materias de competencia de la profesión.

f) Ostentar la representación y defensa de la profesión ante la Administración pública, instituciones, tribunales y todas las demás personas públicas y privadas con legitimación para ser parte en los litigios que afecten a los intereses profesionales.

g) Integrarse en organismos supracolegiales nacionales o internacionales orientados al desarrollo profesional conjunto en todos sus aspectos.

h) Podrá ejercer el derecho a petición, de acuerdo con la ley, y proponer aquellas reformas legislativas que considere justas para la defensa de la profesión.

i) Organizar actividades y servicios comunes de carácter profesional, cultural, asistencial, de previsión y análogos que sean de interés para los colegiados.

j) Promover y desarrollar la formación profesional y fomentar el perfeccionamiento científico, técnico y humanístico de los colegiados.

k) Definir y regular, previa comunicación y audiencia con las universidades o instituciones de formación competentes, diferentes especialidades profesionales a los simples efectos colegiales y establecer las correspondientes normas reguladoras.

l) Tomar medidas y, si procede, ejercitar las acciones legales oportunas para impedir el intrusismo en la profesión.

m) Intervenir como mediador y con procedimientos de arbitraje, en los conflictos que por motivos profesionales se susciten entre los colegiados.

n) Emitir informes y dictámenes en procedimientos judiciales o administrativos en los cuales se discutan cuestiones relativas a honorarios profesionales.

o) Informar de todas las normas que prepare el Gobierno del País Vasco sobre las condiciones generales del ejercicio de la profesión.

p) Ejercer las funciones que les sean encomendadas por la administración, mediante la realización de estudios, la emisión de informes, la elaboración de estadísticas y otras actividades que le sean solicitadas o que acuerde por iniciativa propia.

q) Cumplir y hacer cumplir a los colegiados las leyes generales y especiales, los estatutos y los reglamentos de régimen interior, así como las normas y decisiones adoptados por los órganos colegiados en materias de su competencia.

r) Lanbidea egikaritzeko gaitasuna egiaztatzea, hala eskatzen duten erakunde publiko eta pribatuen aurrean.

s) Lanbidearen inguruko arau deontologikoak jaso eta lantzea.

t) Elkargokideek lanbide-ardurak bete ditzaten sustatzea.

u) Elkargokideen lanbide-interesak defendatzea.

v) Lanbide-jarduna herritarren behar eta interesei egokitu dakien lan egitea.

w) Gizarte-heziketa gizarte- nahiz lanbide-mailan merezi duen aitortpena sustatzea, Euskal Herrian nahiz hemendik at.

x) Legezko xedapenek agindutako eginkizunak edo elkargokideen interesen onerako eta elkargoaren helburuak betetzera bideratutako eginkizun guztiak.

III. TITULUA

ELKARGOKIDE EGITEA

I. KAPITULUA

ELKARGOKIDE IZAERA HARTZEA, UKATZEA ETA GALTZEA

10. artikulua.— Elkargoan sartzea.

1.— Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak agindutakoa betetzeko, elkargoan sartu ahal izango dira lanbidea egikaritzeko legez eskatutako Gizarte Hezitzaileko unibertsitate-titulua dutela egiaztatzen dutenak edo legeak eskatzen dituen egiaztatze-betekizunak betetzen dituztenak.

2.— Atzerritarrak ere elkargoan sartu ahal izango dira, baldin eta aurreko idatz-zatian eskatutako baldintzak betetzen badituzte, eta, gainera, Espainiako Estatuan legez lan egiteko baldintzak betetzen badituzte.

11. artikulua.— Elkargoratzeko baldintzak.

1.— Elkargokide izateko baldintzak, egiaztatze akademikoa edo lanbidekoari dagokionez, GHEE-Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa sortzeko Euskal Lege Biltzarraren Legearen bidez arautuko dira.

2.— Administrazio-baldintzak honakoak izango dira:

a) Gobernu Batzordeari zuzendutako idazkia.

b) Titulua egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea; jatorrizkoa edo, horren ezean, legez konpultsatutako kopia.

c) Ezgaitzeko epaitza judicial irmorik ez izatea.

r) Acreditar la capacitación para el ejercicio profesional ante aquellos organismos públicos y privados que lo requieran.

s) Recoger y elaborar las normas deontológicas comunes a la profesión.

t) Promover el cumplimiento de las responsabilidades profesionales por parte de sus colegiados.

u) Defender los intereses profesionales de los colegiados.

v) Velar para que la actividad profesional se adecue a las necesidades y a los intereses de los ciudadanos.

w) Promover el reconocimiento social y profesional de la educación social tanto en el País Vasco como fuera del mismo.

x) Todas aquellas funciones que le sean atribuidas por las disposiciones legales o que sean beneficiosas para los intereses de sus colegiados y se encaminen al cumplimiento de las finalidades del Colegio.

TÍTULO III

DE LA COLEGIACIÓN

CAPÍTULO I

ADQUISICIÓN, DENEGACIÓN Y PÉRDIDA DE LA CONDICIÓN DE COLEGIADOS Y COLEGIADAS

Artículo 10.— Incorporación.

1.— De acuerdo a la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales, podrán incorporarse al Colegio aquellas personas que acrediten estar en posesión del título universitario de Educador Social legalmente requerido para el ejercicio de la profesión, o reunir los requisitos de acreditación que exijan las leyes.

2.— Los extranjeros/as podrán incorporarse al Colegio siempre que reúnan las condiciones exigidas en el apartado anterior y además cumplan los requisitos para trabajar legalmente en el Estado español.

Artículo 11.— Condiciones de incorporación.

1.— Las condiciones requeridas para colegiarse, respecto a la acreditación académica o profesional, se regularán mediante la Ley del Parlamento del País Vasco de creación del GHEE/CEESPV - Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa / Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del País Vasco.

2.— Las condiciones administrativas serán las siguientes:

a) Solicitud escrita dirigida a la Junta de Gobierno.

b) Aportación de la documentación acreditativa del título mediante original o en su defecto copia compulsada legalmente.

c) No estar incurso en sentencia judicial firme de inhabilitación.

12. artikulua.– Ohorezko kideak.

Gobernu Batzordeak elkargoko ohorezko kide izendatu ahal izango ditu, meritu zientifiko, tekniko edo lanbidekoei esker, gizarte-heziketaren edo gizarte-hezitzaileen lanbidearen garapenaren alde lan egin duten pertsonak, horiek duten titulazioa dena delakoa izanda ere. Izendapenak ohorezko izaera baino ez du izango; hala ere izendatutakoek elkargoaren bizitzan eta arauk ezartzen dituzten elkargoaren zerbitzuetan parte hartu ahal izango dute.

13. artikulua.– Elkargoratzeko erabakia.

Gobernu Batzordeak elkargoratzeko eskabidea, luzean josta, eskabidea aurkeztu eta hiru hilabeteko epean erabakiko du. Baiezko erabakiak, elkargoko iragarki-oholean egongo dira ikusgai, eta idatziz jakinarazi behar ko zaio eskatzaileari zein den hartutako erabakia, beti ere, interesatuak hala eskatzen badu. Baiezko erabakia hartu bada, interesatuak sartze-kuota ordaindu behar ko du horretarako ezartzen den epean.

14. artikulua.– Elkargoratzeko ukatzea.

1.– Elkargokide egiteko eskabidea kasu hauetan ukatuko da:

a) Sarrera-eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa nahikoa ez bada, edo benetakotasunari buruzko zalantzak badaude, edo eskatzaileak elkargoratzeko gezurrezko datuak edo dokumentuak erabili baditu.

b) Eskatzailea lanbidea egikaritzeko ezgaitze-epai irmoa badu.

c) Eskatzailea lanbide-egzaitzeko epai bat betetzen ari bada.

2.– Elkargoratzeko ukatze-erabakia interesatuari jakinaraziko zaio behar den bezala arrazoituta, eta interesatuak erabaki horren aurka egin ahal izango du, hilabeteko epean, Gobernu Batzordeari birjarpenezko errekurtsioa aurkeztuta. Behin betiko ukatze-erabakiaren aurka, interesatuak administrazioarekiko auzietako jurisdikziora jo ahal izango du.

15. artikulua.– Elkargokide-izaera galtzea.

Elkargokide-izatea honako arrazoi hauengatik galduko da:

a) Norberak eskatuta, Gobernu Batzordeari zuzendutako idazkiaren bidez.

b) Elkargo-kuotak edo elkargoko gobernu-organismoek ezarritako bestelako ekarpenak sei hilabete epean ordaindu ez izanagatik. Espediente-laburpen bat inbuitzea beharrezkoa izango da, eta bertan kaltetuari idatziz eskatuko zaio hiru hilabeteko epean zorpekoak ordaintzeko. Epe hori agortu eta eskatutakoa beteko ez balitz, baja emateko erabakia hartuko da, eta interesatuari berariaz jakinaraziko zaio. Kuotak ordaindu ez diren bitartean, elkargokide-izaera etenda egongo da, eta,

Artículo 12.– Miembros de Honor.

La Junta de Gobierno podrá otorgar el nombramiento de Miembro de Honor del Colegio a las personas que, por sus méritos científicos, técnicos o profesionales, sea cual sea su titulación, hayan contribuido al desarrollo de la educación social o de la profesión de educador/educadora social. El nombramiento tendrá carácter meramente honorífico, sin perjuicio de la participación en la vida colegial y en los servicios del Colegio que puedan establecer las normas reglamentarias.

Artículo 13.– Acuerdo de Colegiación.

La Junta de Gobierno resolverá la solicitud de colegiación dentro de un plazo máximo de tres meses posterior a su presentación. Las resoluciones positivas se publicarán a efectos de comunicaciones en el tablón de anuncios colegial debiéndose comunicar por escrito al solicitante la resolución que se adopte siempre y cuando la solicite el interesado. En el supuesto de resolución positiva, el interesado/a deberá abonar la cuota de incorporación en el plazo que se indique al efecto.

Artículo 14.– Denegación de la Colegiación.

1.– La solicitud de colegiación será denegada en los siguientes casos:

a) Cuando la documentación presentada con la solicitud de ingreso sea insuficiente, o existan dudas sobre su legitimidad, o cuando el solicitante haya falseado datos y documentos necesarios para su colegiación.

b) A la persona afectada de sentencia judicial firme de inhabilitación para el ejercicio de la profesión.

c) Por encontrarse cumpliendo una sentencia de inhabilitación profesional.

2.– Contra el acuerdo denegatorio de colegiación, que deberá comunicarse debidamente razonado al interesado, tiene cabida, en el plazo de un mes, el recurso de reposición a la Junta de Gobierno. Contra el acuerdo denegatorio definitivo de ésta, el interesado podrá recurrir a la jurisdicción contencioso-administrativa.

Artículo 15.– Pérdida de la condición de colegiado/a.

La condición de colegiado/a se perderá por las causas siguientes:

a) A petición propia por escrito dirigido a la Junta de Gobierno.

b) Por dejar de abonar la cuota colegial u otras aportaciones establecidas por los órganos de gobierno corporativos durante el término superior a seis meses. Será necesaria la instrucción de un expediente sumario que comportará un requerimiento escrito al afectado, para que dentro del plazo de tres meses se ponga a corriente de los descubiertos. Pasado este plazo sin cumplimiento se tomará el acuerdo de baja, que deberá notificarse de forma expresa al interesado. Durante el tiempo en que se

ondorioz, ezingo da gainerako elkargokideentzat ezarritako sozietate-onurez gozatu.

d) Legez ezgaituta egoteagatik.

e) Heriotzagatik.

16. artikulua.– Elkargoan berriro sartzea.

1.– Elkargoan berriro sartzeko, lehenengo aldiz sartzeko bete beharreko baldintza berak bete beharko dira, eta eskatzaileak egiaztatu egin beharko du –berezkoa bada– zigorra edo zehapena bete duela, bajaran zioa hori izan bada.

2.–Bajaren zioa kuotak edo ekarpenak ez ordaintzea izan bada, edo baja eskatu baldin badu, eskatzaileak elkargoko organoek balioz ezarritako birsartze-kuota ordaindu beharko du.

II. KAPITULUA ELKARGOKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

17. artikulua.– Elkargokideen eskubideak.

Elkargokideen eskubideak hauek dira:

a) Gizarte-hezitzailearen lanbidean jardun ahal izatea.

b) Elkargoaren laguntza, aholkua eta defentsa jasotzea, honek dituen baliabideen laguntzaz, eta arauz ezarritako baldintzetan, lanbidean jardutearekin loturiko kontu guztietan.

c) Elkargoaren zerbitzuak eta bitartekoak erabiltzea ezarritako baldintzen barruan.

d) Elkargoaren esparruan deitutako hauteskudeetan hautatzea eta hautatua izatea.

e) Elkargoaren bizitzan parte hartzea, batzar nagusietara eta batzordeetara edo beste lan-talde batzuen bilkuretara joatea, norberaren lanbide-espezialitatearen arabera.

f) Arauz hartutako baldintzetan, batzordeen eta lantaldeetan partaide izatea.

g) Finkatutako baldintzeekin bat etorrira sortzen diren aurreikuspen-erakundeetan partaide izatea.

h) Gobernu Batzordeari iradokizunak, eskabideak eta kexak idatziz aurkeztea.

i) Elkargoaren jardunari buruzko eta lanbidearen intereseko informazioa jasotzea.

j) Datu pertsonalak babestearen inguruan indarrean dagoen legeriak aitortutako eskubideez gozatea.

18. artikulua.– Elkargokideen betebeharrak.

Elkargokideen betebeharrak hauek dira:

produzca la situación de impago de las cuotas se entenderá suspendida la condición de colegiado no pudiéndose, en consecuencia, gozarse de los beneficios sociales establecidos para los restantes miembros del Colegio.

c) Por incapacidad legal.

d) Por defunción.

Artículo 16.– Reincorporación al Colegio.

1.– La reincorporación al Colegio requiere las mismas normas que la incorporación y el solicitante tendrá que acreditar -si es necesario- el cumplimiento de la pena o sanción, cuando ésta haya sido el motivo de la baja.

2.– Cuando el motivo haya sido la falta de pago de las cuotas o aportaciones, o haya solicitado la baja, el solicitante tendrá que satisfacer la cuota de reincorporación válidamente establecida por los órganos colegiales.

CAPÍTULO II DE LOS DERECHOS Y DEBERES DE LOS/LAS COLEGIADOS/AS

Artículo 17.– Derechos de los/las colegiados/as:

Son derechos de los colegiados y las colegiadas:

a) Ejercer la profesión de educadora y educador social.

b) Ser asistidos, asesorados y defendidos por el Colegio, con los medios de que éste disponga y en las condiciones reglamentariamente fijadas, en todas aquellas cuestiones relacionadas con el ejercicio profesional.

c) Utilizar los servicios y los medios del Colegio en las condiciones establecidas.

d) Elegir y ser elegido en las elecciones que se convoquen en el ámbito colegial.

e) Participar activamente en la vida colegial, asistir a las asambleas generales y a las comisiones u otros grupos de trabajo de acuerdo a su especialidad profesional.

f) Formar parte de las comisiones, y los grupos de trabajo que se establezcan en las condiciones que reglamentariamente se adopten.

g) Integrarse en las instituciones de previsión que se creen de acuerdo con las condiciones que se fijen.

h) Presentar a la Junta de Gobierno escritos de sugerencia, peticiones y quejas.

i) Recibir información sobre la actividad corporativa y de interés profesional.

j) Gozar de los derechos reconocidos por la legislación vigente en materia de protección de datos personales.

Artículo 18.– Deberes de los/las colegiados/as.

Son deberes de las colegiadas y los colegiados:

a) Lanbidean ardura etikoz jardutea, estatutueta, kode deontologikoan eta eman daitezken beste aginduetan ezarritako arauak errespetatuz.

b) Elkargoaren arauak betetzea, bai eta elkargoko gobernu-organoei hartutako erabakiak ere.

c) Elkargoari hogeita hamar eguneko epean egoitza edo helbidearen aldaketak jakinaraztea.

d) Ezarritako kuotak eta ekarpenak garaiz ordaintzea.

e) Elkargoaren bizitzan parte hartzea, batzar nagusietara eta batzordeetara edo beste lan-talde batzuen bilkuretara joatea, norberaren lanbide-espezialitatearen arabera.

f) Elkargokideak hautatua izan den kargurako arduraz jardutea, eta elkargoko gobernu-organoei eska diezaioketen egitekoak betetzea.

g) Beste elkargokide batzuen korporazio- edo lanbide-eskubideei kalterik ez egitea.

h) Gobernu Batzordeari laguntza ematea eta, bereziki, elkargoarekin loturiko kontuetan laguntzea edo informazioa ematea, Gizarte Hezitzailearen Kode Deontologikoak babesten duen lanbideko sekretua urratu gabe.

i) Zuzenean edo zeharka bezeroak erakartzeko publizitatea ez erabiltzea, lanbide-deontologiaren aurkakoa bada edo lehiaketa desleiala izan badaiteke.

III. KAPITULUA

LANBIDEAREN JARDUNA ARAUTZEN DUTE OINARRIZKO ABIABURUAK

19. artikulua.– Oinarrizko abiaburuak.

Gizarte-hezitzailearen oinarrizko abiaburuak gizartean eta heziketan esku-hartzean profesional gisa modu eraginkorrean jokatzera bideratu egingo dira; eta pertsona, talde eta kolektiboak dinamizatzean espezializatzerara ere bai, pertsona, gizarte eta kultura mailako garapen prozesuei ekin ahal izateko.

20. kapitulua.– Lanbidean jardutea.

1.– Gizarte-hezitzailearen lanbidea liberala da. Hala ere, lanbide hori lan-harreman gisa egikaritu ahal da, edozein enpresa publiko edo pribaturekin, bai eta funtzionario-izaerako harreman baten bidez ere.

2.– Dena delarik ere, lanbide-egintza elkargoak onetsitako arau deontologikoei lotu beharko zaie.

21. artikulua.– Lehiaketa desleiala.

1.– Gizarte-hezitzaileak saihestu egin beharko du lehiaketa desleial oro, eta beraren publizitate edo propagandan, elkargoak edo, hala badagokio, Batzar Nagu-

a) Ejercer la profesión con responsabilidad ética respetando las normas establecidas en estos Estatutos, en el Código Deontológico y las que puedan dictarse.

b) Cumplir las normas corporativas así como los acuerdos adoptados por los órganos de gobierno del Colegio.

c) Comunicar al Colegio, en un plazo de treinta días, los cambios de residencia o domicilio.

d) Abonar puntualmente las cuotas y las aportaciones establecidas.

e) Participar activamente en la vida colegial; asistir a las asambleas generales y a las comisiones u otros grupos de trabajo a los cuales, por su especialidad profesional, sea convocado.

f) Ejercer diligentemente los cargos para los cuales fue elegido y cumplir los encargos en los órganos de gobierno que el Colegio pueda encargarle.

g) No perjudicar los derechos corporativos o profesionales de otros colegiados.

h) Cooperar con la Junta de Gobierno y, particularmente, prestar su colaboración y facilitar información en los asuntos colegiales por los cuales sea requerido, sin perjuicio del secreto profesional exigido por el Código Deontológico del Educador y la Educadora Social.

i) No hacer uso de publicidad encaminada a la obtención de clientela, directa o indirectamente, que sea contraria a la deontología profesional o que signifique competencia desleal.

CAPÍTULO III

PRINCIPIOS BÁSICOS REGULADORES DEL EJERCICIO DE LA PROFESIÓN

Artículo 19.– Principios básicos.

Los principios básicos del y de la educador/a social deben estar orientados a comportarse de forma efectiva como un/a profesional de la intervención socioeducativa, especializado en la dinamización de personas, grupos y colectivos para poder iniciar procesos de desarrollo personal, social y cultural.

Artículo 20.– Ejercicio profesional.

1.– La profesión de educadora y educador social es de índole liberal. No obstante dicha profesión puede ejercerse, sin necesidad de cursar baja colegial, a través de relación de naturaleza laboral con cualquier empresa pública o privada e incluso a través de una relación de naturaleza funcional.

2.– En todo caso, la actuación profesional tendrá que atenerse a las normas deontológicas aprobadas por el Colegio.

Artículo 21.– Competencia desleal.

1.– La educadora social y el educador han de evitar cualquier forma de competencia desleal, y en su publicidad o propaganda, se atenderá a las normas que esta-

siak ezarritako araei lotuko zaie. Beti ere, debekatuta egongo da engainuzko propaganda, bai eta eskumengaietan indarrean dagoen araudiaren kontrakoa eta elkargoak lanbide-ordainsariei buruz ezarritako araudiaren kontrakoa ere. .

2.– Gizarte-hezitzaileak ahalegina egingo du, erabilerazientifikoekin bat eginez, bere jakinduria lanbide-komunitateari helarazteko.

22. artikulua.– Txostenak egitea.

Lan profesionalak direla-eta, dokumentuak, txostenak, aginduak, diagnostikoak eta antzekoak egin behar dira, profesionalak sinatu behar ditu, eta bertan elkar-gokide-zenbakia adieraziko du. Halaber, agiri horien edukiaren eta egokieraren ardura elkargokidearena izango da.

IV. TITULUA

GOBERNU ORGANOAK

23. artikulua.– Elkargoko organoak.

Elkargoak honako organoak izango ditu:

- a) Gobernu Batzordea izeneko gobernu-organo bat.
- b) Batzar Nagusia, osoko bilkurako organo gisa.
- c) Presidente, aurreko organoen goreneko ordezkari izango duena.

I. KAPITULUA BATZAR NAGUSIA

24. artikulua.– Batzar Nagusia.

1.– Batzar Nagusia elkargoaren organo burujabea da, eta, horren ondorioz, hartzen dituen erabakiak bete behar ditu elkargokide guztiek, bai eta bertaraten ez direnek, disidenteek eta absentistek ere.

2.– Batzar Nagusiaren bileretan elkargokide guztiek har dezakete parte eskubide guztien jabe direla egiaz-tatu ondoren.

25. artikulua.– Batzar motak.

1.– Ohikoak eta ezohikoak izan daitezke batzarrak.

2.– Ohiko batzar orokorrak urtean behin egingo dira, urteko lehenengo hiruhilabetekoan. Ohiko batzarraren jasoko dira aurreko ekitaldiaren aurrekontuaren likidazioa, aurreko urteko jardueraren memoria, kudea-keta-proiektua eta unean uneko ekitaldiaren aurrekontua.

3.– Ezohiko Batzar Nagusia bilduko da ondorengoek eskatuz gero:

a) Gobernu Batzordeak edo/eta Batzorde Iraunkor-rak.

bleza el Colegio o, si procede, la Asamblea General. Estará prohibida, en cualquier caso, la propaganda engañosa, la que sea contraria a la normativa vigente en materia de competencia y a la normativa colegial en materia de honorarios profesionales.

2.– El educador y la educadora social han de procurar, de acuerdo con los usos científicos, la comunicación de su saber a la comunidad profesional.

Artículo 22.– Emisión de informes.

Todos los trabajos profesionales de los/las colegiados/as que requieran emisión de documentos, como informes, dictámenes, diagnósticos... tendrán que ser firmados por el profesional, el cual hará constar su número de colegiado y se responsabilizará del contenido y oportunidad.

TÍTULO IV

DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO

Artículo 23.– Órganos colegiales.

El Colegio tendrá los siguientes órganos:

- a) Uno de Gobierno, denominado Junta de Gobierno.
- b) La Asamblea General, como órgano plenario.
- c) El Presidente, que ostentará la máxima representación de los órganos anteriores.

CAPÍTULO I LA ASAMBLEA GENERAL

Artículo 24.– La Asamblea General.

1.– La Asamblea General es el órgano soberano del Colegio y como tal obliga con sus acuerdos a todos los/las colegiados/as, incluso a los ausentes, los disidentes y los absentistas.

2.– En las Asambleas Generales pueden participar todos los/las colegiados/as, previa acreditación, que estén en plenitud de sus derechos.

Artículo 25.– Tipos de Asambleas Generales.

1.– Las Asambleas podrán ser ordinarias y extraordinarias.

2.– La Asambleas Generales se reunirán con carácter ordinario una vez al año, dentro primer trimestre. La Asamblea ordinaria incluirá la liquidación del presupuesto del ejercicio anterior, la memoria de actividades del año anterior, el proyecto de gestión y el presupuesto del ejercicio actual.

3.– La Asamblea General se reunirá con carácter extraordinario cuando así lo acuerde:

a) La Junta de Gobierno y/o la Comisión Permanente.

b) Gutxienez, elkargokideen % 20k eskatzen badu. Horrelakoetan batzarrarako deia, gehienez, 45 eguneko epean egingo da.

Aztergaien zerrendan agertzen diren puntuen gainean baino ezingo dira erabakiak hartu. Aztergaien zerrenda hori Gobernu Batzordeak edo batzarrerako deia egin duten elkargokideek, hala badagokio, egingo dute.

26. artikulua.– Deialdiak.

Batzar Nagusirako bilkurak idatziz jakinaraziko zaizkie elkargokideei banakako jakinarazpenez, gutxienez 15 egun lehenago, eta bertan eguna, ordua, lekua eta aztergaien zerrenda zehaztu behar dira.

27. artikulua.– Batzar Nagusiaren bilkurak.

1.– Batzar Nagusiaren bilkuretako buru elkargoko presidentea izango da, eta elkargoko idazkaria batzarraren idazkari izango da.

2.– Elkargokide bat beste batek baino ezin du ordezkatu Batzar Nagusian, Gobernu Batzordeari igorritako idatzi baten bidez; idatzi horretan, argi adierazita egongo da ordezkapena utzi zaion elkargokidearen izena, eta zein batzar nagusitarako utzi zaion ordezkapena, data ere adieraziz. Dokumentu hori bi elkargokideek sinatuko dute, eta bertan zehaztutako batzar nagusirako baino ez da baliozkoa izango.

3.– Elkargokide bakoitzak gehienez ere bost ordezkapen hartu ahal izango ditu beregan, eta berorien botoak.

4.– Batzar Nagusiaren eraketa baliozkoa izango da lehenengo deialdian elkargokideen gehiengo osoak parte hartzen badu, bertaratuta edo ordezkarien bidez. Bigarren deialdian, ordu erdi geroago egingo dena, eraketa baliozkoa izango da bertaratutako edo ordezkapenezko elkargokideen kopurua edozein delarik ere.

5.– Aztergaien zerrendan ageri diren gaiei buruz baino ezin izango dituzte erabakiak hartu.

6.– Bozketak bi motatakoak izango dira: izenduna edo sekretua. Bozketa sekretua izango da, batzarraren dauden elkargokide batek hala eskatzen duenean.

7.– Erabakiak bertaratutakoekin eta horiek ordezkatzeko dituzten botoen gehiengo soilez hartuko dira. Hala ere, bertaratutakoekin bi herenen gehiengo eskatuko da honakoak bozkatu eta onesteko:

a) Indarreko aurrekontuan aurreikusita ez dauden prestazio ekonomikoak.

b) Gobernu-batzordearen aurkako zentzura-botoa.

c) Estatutu hauen aldaketa.

28. artikulua.– Batzar Nagusiaren Akta Liburua.

Batzar Nagusiaren bilkuretan akta bat egingo da, eta horretarako prestatutako liburu batean jasota geratuko da, presidentek eta idazkariak sinatuta. Batza-

b) Cuando lo solicite un número de colegiados/as que represente el 20% del total como mínimo. La Asamblea deberá ser convocada en un plazo máximo de 45 días.

Solo podrán adoptarse acuerdos válidos sobre aquellos puntos que figuren en el orden del día, bien sea elaborado por la Junta de Gobierno o por los colegiados convocantes de la Asamblea, en su caso.

Artículo 26.– Convocatorias.

Las reuniones de las Asambleas Generales serán comunicadas por escrito y con notificación individual con una antelación mínima de 15 días, especificando día, hora, lugar y orden del día.

Artículo 27.– Reuniones de la Asamblea General.

1.– Las Asambleas Generales serán presididas por la Presidenta o el Presidente del Colegio, actuando de Secretario/a el que lo sea del mismo.

2.– Los/las colegiados/as solo podrán ser representados en la Asamblea General a través de otro colegiado, mediante escrito dirigido a la Junta de Gobierno, en el que se ha de especificar claramente el nombre del colegiado en quien se delega la representación así como la Asamblea General para la que se delega, con especificación de la fecha de la misma. El documento será debidamente firmado por ambos colegiados y sólo tendrá validez para la Asamblea General que se especifique en el mismo.

3.– Cada colegiado podrá ostentar un máximo de cinco representaciones y sus correspondientes votos delegados.

4.– La constitución de la Asamblea General será válida si concurre la mayoría absoluta de los colegiados, presentes o representados, en la primera convocatoria. En segunda convocatoria, celebrada media hora más tarde, será válida cualquiera que sea el número de colegiados/as, presentes o representados.

5.– Sólo podrán tomar acuerdos sobre aquellos asuntos que hayan sido fijados en el orden del día.

6.– Las votaciones podrán ser de dos clases: nominales o secretas. Las votaciones serán secretas cuando así lo solicite un miembro colegiado presente en la Asamblea.

7.– Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple de votos entre los asistentes y sus representados. No obstante, exigirán una mayoría de dos tercios de los presentes en el momento de la votación para la aprobación de:

a) Aquellas prestaciones económicas extraordinarias no previstas en el presupuesto vigente.

b) Un voto de censura contra la Junta de Gobierno.

c) la reforma de estos Estatutos.

Artículo 28.– Libro de actas de la Asamblea General.

De las reuniones de la Asamblea General se levantará acta, que quedará registrada en un libro para este efecto, firmada por el/la Presidente/a y el/la Secretario/a.

rraren akta, hurreneko bilkuran irakurri eta onetsiko da.

29. artikulua.– Batzar Nagusiaren eskumenak.

Batzar Nagusiaren eginkizunak eta eskumenak hauek dira:

- a) Gobernu Batzordea aukeratzea.
 - b) Gobernu Batzordeak aurkeztutako urteko jardueren memoria onartzea.
 - c) Gobernu Batzordeak aurkeztutako ekitaldiko balantzea eta emaitzen kontua onestea.
 - d) Gobernu Batzordeak aurkeztutako urteko aurrekontuak eta kudeaketa-proiektua onestea.
 - e) Barne-araudia onestea.
 - f) Kode deontologikoa onestea.
 - g) Estatutuen aldaketak onestea.
 - h) Sarrera-kuotak, ohikoak eta ezohikoak, zenbatekoak diren eta nola ordaindu behar diren zehaztea.
 - i) Gobernu Batzordeak bere esku uzten dituen gaien inguruan erabakiak hartzea.
 - j) Elkargoa fusionatzeko, xurgatzeko, banatzeko, izena aldatzeko edo desagiteko proposamenak onestea. Horietarako guztietarako beharrezkoa izango da batzarre-bera bertaratutakoen erdiek gehi batek onartzea.
 - k) Gobernu Batzordearen edo bertako kideen kudeaketa zentzaraztea.
- 1) Elkargoko gobernu-organoen titularrak kargutik kentzea zentsura-botoaren bidez. Zentsura eragingarria izan dadin Batzar Nagusira bertaratutakoen bi hereneko gehiengoa eskatuko da.

II. KAPITULUA

GOBERNU BATZORDeA, PRESIDENTEA ETA ELKARGOKO GAINERAKO KARGUAK

30. artikulua.– Osaera.

1.– Gobernu Batzordea ondokoek osatzen dute:

- a) Presidentea, elkargoko organo gisa.
- b) Presidenteordea.
- c) Idazkaria.
- d) Diruzaintza eta
- e) Bi bokal, gutxienez.

2.– Gobernu Batzordearen barruan, ahal bada, hiru lurralde historikoetako ordezkari bana egongo da.

31. artikulua.– Eginkizunak.

Gobernu Batzordeari dagozkio elkargoaren zuzendaritza eta administrazioa, bai eta Batzar Nagusiak har-

El acta de la Asamblea será leída y sometida a su aprobación en la próxima Asamblea.

Artículo 29.– Competencias de la Asamblea General.

Son funciones y competencias de la Asamblea General:

- a) Elegir a la Junta de Gobierno.
- b) Aprobar la memoria anual de actividades presentadas por la Junta de Gobierno.
- c) Aprobar el balance y cuenta de resultados del ejercicio presentada por la Junta de Gobierno.
- d) Aprobar los presupuestos y proyecto anual de la gestión presentada por la Junta de Gobierno.
- e) Aprobar el reglamento de régimen interno.
- f) Aprobar el Código Deontológico.
- g) Aprobar las modificaciones de los Estatutos.
- h) Fijar las cuantías de las cuotas de incorporación, ordinarias y extraordinarias pertinentes así como las formas de pago.
- i) Decidir sobre las cuestiones que la Junta de Gobierno someta a su competencia.
- j) Aprobar las propuestas de fusión, absorción, segregación, cambio de denominación y disolución del Colegio, siendo necesaria la mayoría de la mitad más uno de los asistentes a la Asamblea.
- k) Amonestar la gestión de la Junta de Gobierno o de sus miembros.
- l) Cesar a los titulares de los órganos de gobierno colegial mediante el voto de censura. Para la efectividad de la censura se requerirá mayoría de los dos tercios de los colegiados asistentes a la Asamblea General.

CAPÍTULO II

LA JUNTA DE GOBIERNO, PRESIDENCIA Y RESTANTES CARGOS COLEGIALES

Artículo 30.– Composición.

1.– La Junta de Gobierno estará integrada por:

- a) La Presidencia en su calidad de órgano colegial.
- b) La Vicepresidencia.
- c) La Secretaría.
- d) La Tesorería, y
- e) Dos Vocalías como mínimo.

2.– Dentro de la Junta de Gobierno, si fuera posible, habrá un representante por cada uno de los tres Territorios Históricos.

Artículo 31.– Funciones.

Corresponde a la Junta de Gobierno la dirección y administración del Colegio y la ejecución de los acuer-

tutako erabakiak egikaritzea ere. Gobernu Batzordearen eskumenak ondokoak dira:

a) Batzar Nagusiaren erabakiak, estatutuak eta elkargoari eragiten dion indarreko legeria bete eta beteaztea.

b) Elkargoratzeko eskaeren gainean erabakiak hartzea.

c) Elkargoratzeko kuoten zenbatekoa, aldizkakoak ez direnak eta derramak zehaztea.

d) Elkargoaren ondasunak administratzea, bai eta elkargokideek ordaindu beharreko kuota mota guztien diru-bilketa egitea ere.

e) Elkargoaren interesen defentsarako hartu beharreko neurriak hartzea.

f) Diziplina-zehapenak jartzea, aurretik dagokion espedientea instruituta.

g) Elkargoaren eginkizunak hobeto betetzearren beharrezko diren lan-batzordeak sortu edo berregituratzea, eta berauek desegitea horretarako ziorik egonez gero.

h) Elkargokideen eginkizun eta lanbide-eskumenak betetzen direla zaintzea.

i) Ohiko eta ezohiko batzarrak egiteko egunak zehaztea.

j) Batzar Nagusiari unean uneko ekitaldiaren memoria eta balantzea aurkeztea, eta hurrengo ekitaldiko kudeaketa-plana eta aurrekontu ekonomikoa.

k) Elkargoak batzarren artean egiten duen bidea antolatatu, zuzendu eta kudeatzea.

l) Eta hemen adierazita ez badago ere, estatutu haueetatik erator daitekeen beste edozein eginkizun.

32. artikulua.– Karguen iraupena.

1.– Karguek lau urte iraungo dute, eta berriro ere aukeratuak izan daitezke. Gobernu Batzordeko kideren batek dena delakoagatik kargua uzten badu, batzordeak berak izendatuko du ordezkari bat, behin-behinean kargua betetzeko; horrek karguan iraungo du lehenengo arauzko hautatzea egiaztatzen dena arte.

2.– Gobernu Batzordearen kideen erdiek baino gehiagok utziko balute beren kargua, hilabeteko epean hauteskundeetarako deia egingo da.

33. artikulua.– Bilkura.

1.– Gobernu Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, gutxienez lau bilkura egingo ditu –hiruhilean behin –, eta horietarako deia presidenteak egingo du. Ohiz kanpo, behar beste bilduko dira kideak, presidentek deituta edo batzordeko kide batek eskatuta.

2.– Zitazioak banakakoak izango dira eta zortzi egun lehenago bidaliko dira. Premiazko kasuan, ahoz egin

dos adoptados por la Asamblea General. Son competencias de la Junta de Gobierno las siguientes:

a) Cumplir y hacer cumplir los acuerdos de la Asamblea General, los Estatutos y la legislación vigente que afecte al Colegio.

b) Decidir sobre las solicitudes de colegiación.

c) Fijar la cuantía de las cuotas de incorporación, no periódicas y derramas.

d) Administrar los bienes del Colegio, así como recaudar las cuotas de todo tipo que tengan que hacer efectivas los colegiados/as.

e) Adoptar las medidas convenientes para la defensa de los intereses del Colegio.

f) Imponer, previa instrucción del expediente oportuno, sanciones disciplinarias.

g) Crear o reestructurar las comisiones de trabajo necesarios para el mejor cumplimiento de las funciones colegiales y proceder a su disolución si hay argumentos que lo justifiquen.

h) Velar por el cumplimiento de las funciones y competencias profesionales de los colegiados y colegiadas.

i) Fijar las fechas de celebración de las Asambleas ordinarias y extraordinarias.

j) Elaborar y proponer a la Asamblea General la memoria y balance del ejercicio en curso así como el plan de gestión y presupuesto económico del próximo ejercicio.

k) Organizar, dirigir y gestionar la marcha del Colegio en los periodos interasamblearios.

l) Y cuantas funciones no indicadas se deriven de estos Estatutos.

Artículo 32.– Duración de los cargos.

